

ZAZPI

BIZKAITARRAI-BIZKAIERAZ*

191n. zenbakia/abendua-lotazilla
1994



**BIZKAIKO FORU ALDUNDIA
KULTURA SAILA
LAGUNTZAILLE**



DONIBANE LOITZUN
Biotzak ez dau mugarik,
Euskaldunak gara
Zazpiak bat

BUENABENTURA URIARTE

ZEANURI

Erri eder bat goratu nai dot
Gorbea baño gorago,
Zeanuri da aren oñarri,
izen ona garaiago:
bere semeak nor geiagoka
jo dabe zintzo ordago,
elizan eta Euskal errian
nor eurak baño geiago?

NORTASUNA

"Aurra azten ari zen eta nortasunez finkatzen"
(Luk. 1-80).

Nortasunez finkatu. Ez da gauza erreza nortasunaren sustraiak nundik datozen argi ta garbi jakitea. Gaurko sikolojiak ba dau, gai ontaz, zer ikasi eta esan bearra.

Baña nork ukatu nortasunaren sustrai sakonak etxe ta sendi barruan dagozala?

Egia esateko Jaunagandik datorkigu bizibiderako gaitasun berezi bat, baño umearen nortasunak guraso eta sendiaren lur-giroa, giro bero ta biguna bear dau bere izakera, fede bizitza eta gizatasuna ondo finkatzeko.

Gaur egun nortasunari buruz ikaste zorrotzak egiten diardugu. Euskal errian, barriz, importantzi aundia emon jako beti. Gure artean alde galanta dago "nor bait etorri da" esatetik. "nor dan bat etorri da" esatera. Erderazko "personaje" gure artean jaun aundi bat da; guretzat nortasuna eta jauntasuna bat dira.

Nor dogu aita Buenabentura Uriarte? -Bere izakera ederrari nortasuna eta jauntasuna emon eusson euskal seme jator ta bikaiña.

GORABIDEA

Aita Buenabentura Uriarte, Zeanuri'n jaioa (1891) mixiolari ospetsua eta franzizkotar gotzain santua izan zan Peru'ko mixio zelaietan.

Gaztetatik dator ari oneko mutilla, eta batez be, burua ondo jantzia eta berebiziko oroimena. Gai-

tasun onekin jabeturik gorabidea izango da bere elburua.

Franzizkotarren artean apaiztu ondoren (1917) oparo erakutsiko dau bere baliotasuna. Biblia, Teologia eta ebreu izkuntzan rnaixu argia izango da, baita be sermolari gartsua eta ekarri onekoa.

Ara emen Franzizkotarren artean izango ditun gorengo jardunaldiak: Praille etxe baten Nagusi (1924-28); Oraindik gazte dala euren Probintziala, bi aldiz; geroago baten mixiolarien arduraduna; bere gorabidea Ukayali'ko Gotzaiña izanik txapelduko dau.

Maitasuna eta buru garbitasuna oso bearrezkoak dituzu giza-semeen alde egokiro jokatzeko, baño onekin bateera, on-egiñak, erruki-egiñak, irabazten dabe erriaren ederra.

Ara emen aita Uriarte'ren lanerako garra eta ekiñaldiak: Ukayali eskualdeko mixio bazterretara ostera ugariak egiñ; mixio egitamu eta batzarrak eratu eta eragiñ; Lima'ko Gotzaiñak bialduta Kanta ta Yauyo eliz-eskualdea begiztatu; ibillaldi garratz onetan zaldi ganetik jausita lau saiets azurrak apurtuko jakoz; eliz mezulari izentaturik Ecuador eta Argentina'ko praille etxeak ikusmiratu; Erroma'n be izan zan, bi alditan, Franzizkotan'en Batzar Nagusian.

Gotzain bati dagokiozan arazoak, ardurak eta eginbearrak ondo burutzeko eten barik ekingo dau: mixiolari barriak ekarri, erri barrietan mixio etxeak eraiki, batzarrak eratu, berbaldi egokiak egiñ.

España ta Peru'ko Jaurlaritzak dedu-domiñak ezarririk goratu eben bere jardunaldi goragarria. Liburu baliotsu bat idatzi eban: "La Montaña del Peru, Estudio Etnico y Geografico".

Ukayali aldeko mixioetan bai izan zituala neke gorriak, gaxoaldi larriak, eta gurutze gogor azturnak Kristo'gaz batera esan bearko dau: "Bizitza bere lagunengaitik emotea baño maitasun aundia-gorik ez dago".

74 urtedun zalarik Lima Uriburuan Jaunaren besoetan artu eban betiko koroia ta atsedena (1967).

Omenik zintzoena Euskal seme jator oni.

EUSKAL ASTEA

Gaur, idaztitxu au idazten gagozan egunean, azillaren 14'an, asi dogu gure Euskal-Astea.

Aurten ez da beste urteetakoak lakoak, gai barriak eta izlari barriak aurkitzen alegindu gara. Eta gure egitasmoa zelan bete dan jakin barik, emen asmoa bera azaldu nai dogu.

Aurkezpena, alkar-izketa eta bertsolaria beste urteetan lez izango dira, baiña izlariak?

Aurreko urteetan arlo bakoitzean jakitun diran izlari urtetsuak aurkitzen izan doguz, baiña aurten gazteai emon dautsegu lekua. Ez, gero, edozein gazteri, dagokion arloan

jakitun dala uste dogunai baiño. Zenbaki onetan doa lenengo gaia. Zeuek ikusi.

Beste gai batzuk? Euskerea irakaskintzan eta aurrerapenean, ibilgailluak eta berba-gailluak gogoan dirala eta Bizkai'ko Elerti edo literaturan punterengoa dogun Txomin Agirre'ren liburu baten iruzkiña edo azalpena. Barikuko gai onetan irudiak agertuko dira, gaur ain zabal dabiltzan entzun-ikus gailluak bide dirala.

Itxaropenez beterik sartzen gara aste onetara. Esango dautzuegu gure asmoa zelan bete dogun. Irakurri urrengo ZER.

GURE EGUTEGIA

- Durango'ko liburu-Azokan asi giñan gure egutegia -1995- eskintzen.
- BBK'ren laguntzaz EUSKERAZALEAK eskintzen dautzue oparitu au.
- Eskatu BBK'ren Idaztoki ta Ordeztetxeetan naiz EUSKERAZALEAK'en gizarte-etxean.
- Arar zer aurkituko dozun egutegi onetako eguneroko orritxuan:
 - * Iltea, urtea, joan eta joateko egunak, eguzkia ta illargia noz, egunaren izena ta zenbakia, iru urteurren, santuak eta jaiak.
 - * Kondairako jakingarriak, bertsoak, egaztien jakingarriak, euskal esaerak, munduko gauza arrigarriak, izkirimiak, zapatuetan igandeekeo biblia, jaiurreetan egunaren jakingarriak, jazokizunak eta abar.
- BBK'k eta Euskerazaleak emoten dautsuen oparia dozu, doan emoten da.
- Gure opari onegaz batera bejoakizu 1995 urterako gure zorion-agurrik beroena.



URTE ZORIONTSUA
1995

EUSKERAZALEAK

ZORIONAK, ETA SIKERAN

Zoriontzekoa da 75 urte betetzen dauzana. Orregaitik lerro apal oneetatik Euskaltzaindia zoriondu gura dot. zorionak here urtebetetzean, baina ez 75 urte bete ditualako bakarrik, geldiu-nea egin eta alboetara begiratzen asi dalako ere bai.

Gauza guztietan gertatzen danaren antzera, orrenbeste urte-tan danatarikoa egon da, ona eta txarra; baina euskalkiak azke-nengo 25 urteotan ez dot uste bultzakada aundirik euki dabenik erakunde onen aldetik. Beste era batera esanda, euskalkiek, eta bizkaierak berziki, beti nire ustetan, ez dauke zor aundirik Eus-kaltzaindiarekin.

Onez gero, bataren batek esango eban: "Betiko abestia beti-koren baten aotik. Badago betikoetariko bat geziak eta zuziak botatzen euskeraren alde ainbeste lan egin dauan taldearen aur-ka". Orretan dagoanari mailukadak untzetik urrun joten dauaza-la esan bear deusat. Ez naz ni gerraren zale, baizik bakearen alde (non entzun dot alakorik?).

Asierako zorionak emotea ez da adarra jotea izan, biotz-bio-tzekoa baino. Ez jat inoiz burutik igaro eta ez dot inoiz esan, az-kenengo 25 urteotan Euskaltzaindiaren agintaritzako partaideen aldetik euskalkienganako bomndate txarrik egon danik. Euske-raren onerako (edo batuaren onerako, nire ustez ez da bardin eta) bizkaierak, tamalez, triskantza bat jasan bear ebal esaten ebanak ere, ziur nago munduko borondaterik aundiena eta ikus-pegirik luzeena eukazana, baina bearbada ez oinak lur gainean.

Edozein lanetan egiten danez, elburu batzuk ipinten dira-nean, Inaren jarraipen bat egin bear izaten da, abiapuntura bide zuzenetik goazen ala ez egiaztatzeko. Ez dau balio elburuak lor-tzeko jarri dogun denporaren mugan gelditu eta begiratzea bete diran ala ez. Orduan berandu izaten da, eta joandako denporeak konponbiderik ez daukanez. uts egitearen arrazoiak eta errudu-nak bilatzen asten gara, sarritan gu-geu garala errudun ia baka-rrak kontutan artu barik.

Orixe uste dot Euskaltzaindiak aspaldion egin gura dauala, edo beintzat ori pentsatu gura dot. Geldiunea, erreflexioa, da-roan bidea begiratu. aztertu eta zuzendu. Dana dala 25 urteri denpora asko deritxot egindako edo frogatutako "experimen-toa" baliogarria dan ala ez ikusteko. Ezin dogu emaitzei eta on-dorioei itzaroten egon gauza barriaren baliogarritasuna ikuste-ko: arinago, bidean gabilzan bitartean, bearrezko estratzatik (zergaitik ete da euskereak ez daukala ez biderik ez errepiderik, estratzak baino) goazen aztertu bear dogu. Zelango emaitzak lortzen gabilz elmugara eldu bitartean?

Euskera batuaren gurasoek euren asmakizuna barriro bidera-tu bearra ikusi dabe: Arazoa eskuetatik joan jake. Ez da izango aurretik ez dalako oarrrik egon. Bertatik, barrutik oiartzun bako oivak ere euki dauz. Eta ez edononak, ezin dodaz edonortzat ar-tu il barria dan Labaien edo ain gogoratua dogun Lino Akesolo jaunak eta. Batasun aldekoak. euskeraren aldeko langile amo-rratuak, baina sekula ez deutset "batua" dalakoaren aldeko go-respen askorik eta bai baten baino geiagotan krontrakorik. ent-zun.

Askotan zalatu jakona "batuari" ez da lojikaren aurkako zo-rioneko "h"-a bakarrik izan. Izkuntzea ez da Fisika ez Matema-tika arloko ariketa bat, eta badirudi orixe biurtu dala. Itzak edo-zelan asmatzen eta erabiltzen dira. Edonon gainera, telehista, irrati, egunkari, aldizkari... ia guztietan ikusten dira erderaz ba-litz onartu ezinezkoak izango litzatekezan utsak. Beste izkun-

tzetako komunikabideetan gramatikaren legeak jagon eta zu-zendu egiten badira, zergaitik euskerakoak ez?

Orixe dala arazoa uste dot. Euskerea ain egoera txarrean ikusirik, lan geiago egin da gordetzean eta zabaltzean erabilera zaintzean baino. Kasu geiago egin jako zenbatusunari nolakota-sunari baino, eta azkenean eskuak burura jaurtiz euskalkiak ere ortxe dagozala konturatu dira. Eta gainera batuak eskeintzen dauazan otzatusunaren otzikerak eta dardarak berotzeko euskal-kiak estalki onak izan daitekez. Esakerak, gauzak esateko erak... orreek dira izkuntza bateri bizitasuna emoten dautsoe-nak, eta batuan falta izaten diranak. Izkuntza "standar" egiteko asmoan Matematika eta Kimika legeak jarri dira eta azkenean gai orrek besteko otza biurtu da. Bertsuak egitea neurri bateri itzak egokitzea baino zerbait geiago dan moduan, izkuntza gra-matika legeak baino ainbat zabalagoa eta aberatsagoa da.

Baina berbideratze orretan zera gertatu leiteke: Batzuk 25 urtetan esaten egon direnari uko egin eta urratsa beste leku ba-terantz zuzendu bear. Ez dot esan atzerantz, beste leku baterantz baino; izan ere atzerantz egitea zailagoa eta arrotasunarentzat mingarriagoa da. Dana dala neure zalantzak daukadaz danak egongo ete diran prest aldaketarako edo trenaren antzera, bide-tik urtetzeko bildurrez (edo arrotasuna arrokeriaz erratzuz) to-peak aurkitu arte aurrera joko daben.

ENRIKE ITXASALDE

EGARRIA

Sai zaarrak, ortzia besarkatzean,
egoez geriza iluna barreatzen dau
etxe dauan baso egaletan.

Izadi besteko pizti ezigatxak
ez dau. ez eta bear be, beste aterperik,
ez dau, ez eta bear be, beste lagunik,
zeruko tontor gorria izan ezik.

Andik so egiten dautso atzaparrenpean
bere jaubego txiki -aundiari,
milaka zaraten isiltasunez ok eginda,
gaueko argitan ilun-ilun oi dagerren orreri.

Ez, bakartasunean ugari dan saia,
ez da beti zorionean urri.
Urdin-baltzean egaz egitean,
iretargiaren barbaro otzan besteko gozoa
bereganatzen badau beintzat, ez.


Zenbatgurako isilpekoen lekukoak,
biziaren iturburuei darien ernegaia,
ur gardena balitz lez, egarri danari
edangai damotso.

Edan egingo ete dau gure saiak?
Zazpi, baietz!

Ez dau eta, beste aterperik.
beste ziorik.
askatasuna bera.
il gura ezik!

Iniaki MARTIARTU
1994.eko urrilaren 24an

ARGIUNEAK



Gotzaia
Zulotik urteten


SUDAN'EKO
KATAKUNBAK

- Zer esan dok, txo, katakumak?
- Ez mutil, KATAKUNBAK.
- Eta, zer dozak orrek?
- Berez, illerriak ziran. Erroma'ko lurpean egindako koba eta abar. An eortzen ebezen euren illen gorpuak eta, bien biatarrean, an edukitzen ebezen kristauak euren billerak eta eukaristia...
- Zergaitik ez ebezan agirian egiten?
- Zigorra gañean eukelako arrapatu ezkeru.

- Baña, orrek antxiñako gauzak dozak...
- Sudan'en gaurkoak ere bai.
- Zer gertatzen dok Sudan'en.
- sudan Ejiptotik aurrera joanda dago. Bi askazi edo etnia daude; bata zuria musulmanek osatzen dutena eta bestea beltza, batzuek animistak eta besteak kristauak.
- Zenbat dira beltzok?
- Bost milloi eta zuriak nagusi direnez, beltzok lurretik kendu nai dabez era guztietako erasoak sortuz.
- Zer eraso?
- Uda onetakoa auxe da: Munduak bidaltzen dituen gosetearen aurkako laguntzak eragozte, goseak il ditezen.
- Kristauei ere bai?
- Mahomatarrak direnez kristau-txakurren aurka dagoz, orregaitik Katakunbetan bezala bizi bear... Bi gotzai katoliko dituzte eta an dagoz erriari laguntzen, beuren burua lur-azpian gordeko duten arren...

SALVADOR ZAPIRAIN, "ATAÑO"

- Nor dok ori?
- Gazteiz'ko Seminarioan ezagutu nuen. Ni baño urte bat gazteago. Illea zeukan motza eta tente. Egun batez bere eskola lagun zan Goenaga'k esan eutson: - I animalia ba'itzake, triku. - I, berriz meta-ziria. Luzea eta meia zalako.
- Eta, zer?
- Gerrak arrapatu arte an egon zan ikasketak egiten. Gero, gerratea, kartzelatan... ikasketari laga eutson... Idatzi eban bere aitari buruz lan bat be. Urte asko pasata gero, praille kaputxino sartu zan baratzen zaindari.




Salvador Zapirain. "Ataño"

- Eta, orregaitik aitaten dozu?
- Ez, orregaitik ez. 1968'garren urtetik ona amabi liburu argiratu deutsoez kaputxinoek. Orra lengo apaizgaia orain baratzen lan egin, elizan otoitz eta bere gelan idazle.
- Ez dok makala morroi ori!
- Il arte segituko dabela idazten...
- Ori dok ori !

APAIZGAI BELTZAK

- Gerra ostean jende asko egon zan ruso-komunisten zai... Aizkenean be agertu ziran Madril'etik.
- Bai? Zertan?
- Futboleant jokaten. Jendeak auxe esaten eban: Ainbeste urteetan zai egon eta zertara etorriko eta futboleant jokatzer...!
- Orain gorrien orde, beltzak datoz eta iñork ez dabez artun nai.
- Batzuek bai, ondo artzen dabez; baña, ondo artu bakarrik ez, baita ekarri be...
- Zertara?
- Apaizgaiak ekarri dabez emen bertan apaizteko eta gure elizetan kristau-erria zaintzeko.
- Ori be bai?
- Ori be bai. Emen bertarik ez dago eta kanpotik ekarri bear kristautasunak gure artean iraungo ba'dau...
- Eta, geu giñan euskaldun fededun?
- Mundu osoa bete dogu mixiolariz eta orain geu mixilarien bear.
- Ez dau ba Jesus'ek esaten Eliza ez dala sekulan galduko?
- Bai, ala esan eban; bañan ez dau esaten nun.
- Erne ibilli bearko dogu.



ATUNAREN BURRUKA

- DEIA'k ekarri dau, atuna dala-ta, gataska eta burruka izan dala Ondarribi eta Endaia'ko arrantzaleen artean.
- Ori negargarria dok.
- Zer? Atunaren burruka?
- Ez, euskaldunen arteko burruka, baizik.
- izan be, erdibituta gagoz betidanik...
- Bai, erromatarrek izan ziran gure lenengo erdibitzalleak, Pireneetako gallurrean gure muga ipiñi zutenean...
- Arrezkero emen gagoz tonto-tonto, erdibituta.
- Arrezkero bi milla urte pasa dozak eta aizkenerako geuk pe bi erri garala sinistu.
- Iparragirre berak be zer egin eban?
- Txo, Iparragirregaitik gaizki esaka ez asi...
- Iparragirre bere garaikoa zan eta euskaldunen ezaguera osoa ez dukan, bestela ez eban kantatuko: "Endaian nago txoraturikan / zabal zabalik begiak / ara España lur oberikan / ez da Europa guztian".


ALBISTEAK

"Ara Euskalerrri" esan eban.

- Geuk bai esaten dogu ori, baña berak Endaia'tik Irun'era begira, nola esan diteke "Ara Euskalerrri" Euskalerrriian ba' dago...

ALARMA ITALIA'N

Alarma jotzen asi dira Italia'n.



- Zer alarma gero?
- Famili geiegi ari dirala kanpotar umetxoak ekarri naian.
- Ori ona da.
- Geiegizkoak danak dozak txarrak eta agintariak uste dabe azpi joko bat dagoela arazo orretan.
- Zer azpi-joko egon bear dau umetxo bat estranjeritik ekarten?
- Azpi-joko beltza, ikaragarrizkoa: Susmoa artuta daukate, ez ote diran ari umetxoak ekarri eta euren gorpuzkiak traspalanteetarako saltzen...

ori eziña da. Ezin liteke orrelako astakirtenik egon...

- Diru-gosea duenak, diruagatik edozer gauza egin diteke: Ez dagoela Jainko eta Diruari batera serbitzerik...

EUZKO ALA EUSKO

Sabiñen'tzako Euzko, zalantzarik gabe Eguzkitik datorrelako.

- Berak ala uste eban.



- Eta, zeuk?
- Nik zalantza ba'dot.
- Euskaldunak Eguzkia gurtuten eban.
- Bai. Gizadiaren indar guztiak ere bai: Zeru urdiña edo Ortzia illargia, aizea, mendiak, basoak, arbolak, erre-kak, gizadiaren edozer agerpen...
- Baña, eguzkia be bai.

- Ez ain bereiziki, ortik izena artzeko moduan.
- Eta, Eusko nundik ataraten dozu?
- Istorian zear izen batzuek izan ditugu, baña, geuk geure buruari zer deitzen genion ez dakigu. Ez zuten idazten eta itzak aizeak eraman ditu.
- Zer izen dira orrek?

Lenengo agertzen dan itza Baskunes da, geuri indoeuropeok ipiñitako izena. Ortik atera eben erromatarrek Vascones itza. Baña, Vascones plurala da, askoren izena. Batere-na, nola izango zan? Ortik atera dute Vascon berbea. Nik urten dot txarto aterata dagoela.

- Zuk besteak baño geiago dakizu ala?
- Nik burua erabilli nai dot: Vascones (Baskunes) plurala ba'da. erromatarrek plural ori nundik atara dabe: Vascon'etik ala Vasco'tik.
- Latiñez deklinabide asko dagoz.

Iruugarren deklinabidearen erdua Sermo-Sermonis da. Plurala Sermones. Beraz Sermones ez da Sermon'dik atara Sermot'itik baizik.

Orrela ba'liz, Vascones Vasco'tik dator eta ez Vascon'etik...

- Orixe da ba neuk esaten dotena.

- Ala izanda be zer?

Vasco edo Vascon ori ez dute danok berdin idazten: V ori U da askotan: Uaskon-Uasko.

- Bai, or da Akitania'ren erdi-erdian Auski erri4 (Auch) garai bateko Civitas Auscorum...

Zubetorrek Uasko'tik atera dabe Usko eta Uskara eta beste batzuek Eusko eta Euskera...

- Vascon eta Gaskon berdiñak al dira?

Asierako V ori W ere egiten da eta W'tik Wascon eta Wascon'etik Gascon eta Gascoña... Akitania'ren gerogoko izena. Gerra, Ingalaterra'ren mendean egon zanean, Ducado de Guyena zuen izen... Orra zenbat izen: Akitania (gerora Novempopulania), Gascoña eta Guyena...

- Egia ba'zan, sartun dedilla kalabazan.

TAIWAN EZ DA PARADISU BAT

Taiwan'etik gauzak merke etorten dira gurera.

- Emengo laz- ezik ez dago an.

Mundo osoaren arazoa da langabezia; baña, an ez dabe orrelakorik.

- Zergaitik ez?

Txina'tik aske izan da beti; Mao'k ezin izan eban bereganatu.

- Orregaitik bakarrik?

Beste arra-

zoibide bat ere

bada tartean:

Beti Alderdi

batek berak

agindu dau eta

orrek eman

deutso erriari

pakea eta lana.

Beti izan da

lan merkea.

Ez dago segurantzarik, ez jubilaziñorik, ez ezer...

Orrelan edonork.

Ordu asko lanean, umeak ere bai, eta alogera gutxi.

Bai, eta gero eskutara bat arroz jateko.

Emengorik ez dago an.

"Esango nuke baña / Iotsa naz esaten..." kantaten eben Lekiton.



EUSKAREA ETA AUTESKUNDEAK

Lendakarirako bere izena emon daben batek onela esan dau: Nik ez dakit euskeraz eta ez dot ikasiko (DEIA: 2-X-94).

Ederto. Orrek irabazten ba'dau, eto rTera ederra Euskerarentzat.

Ez kexa; orrek ez dau Euskerea onduratuko.

Bai, ori be alan da.

Eraso-aldi gogorak jasan izan dauz Euskereak, bai gizaldi onetan eta baita ere historian zear; baña, bizirik dirau.

Erriak eusten ba'deutso, ez da izango bildurrik, baña Erakundeak, lagun-du naiean, erriko euskerearen aurka ba'doaz, orduan izango da burruka latza.

- Orretarako, oba da aurka eukitzia, alde baño.



Legazpi'ko Kilometroak ez ditu egin Madril'era begira dauden gorriak (DEIA 3—X—94).
 —Zer nai dozu ba, txo? Euskaldunen erdiak beti egon dozak Madril'era begira, eta andik etorritakoak ba'dira, areago.
 —Euskera gorde eta edertzeko dagoen Erakundeak be, zer egiten ari da? Euskalkien zatiekin Frankestein berri bat atara.

QUMRAN'EKO IDAZTZIAK

—Nun dago Qumran ori?
 —Itxaso Illaren (Mar Muerto) gañean dagoen amiltegi bat da Qumran. Eta amiltegiako orma aretan dagoz koba—zuloak.
 Eta zer dago zulo oietan?
 —An topa dabez sekulako lur—ontzi aundiak.
 Errezak al dira inguratzeko.
 —Ez inñolaz be; oso gaitza ara igoten edo jetsiten.
 —Zer topa dabe ontzietan?
 Jesus' en garaiko paperak; aurrekoak eta ondorengoak ere bai.
 —Eta, txotxokeri orek dau ainbeste garrantzi?
 Ez da txotxokeria. Ontzi orretako zati batek, ertz batean,

ROMA izena du, an egiña dala adieraziz.

— Bai, eta zer?

Ba, orixe: Erroma'tik ara milla ta bosteun kilometro daudela eta ontzi oien barruetan paperak eta larrukiak billatu dabezala.

Zer diño ba paper orrek.
 — Esate baterako, Erroma'tik etorri dan ontziak San Markos'en 6 garren kapituloaren 52—53 ber-soak griegoz dakaz.
 — Eta, orrek zer agertzen dau?




—50'garren urterako egiña zegoela San Markos'en Ebanjelioa eta Erroma'tik etorri zala zati ori. Beti pentsatu izan du-te Erroma'n idazti zala San Markos'en liburu ori.
 — Jesus il eta 17n. urterako egiña zegoen?
 —Eta aldi eskas orretan ez dago Peru eta Mari'ren ipuiñik asmatzerik...

MANUEL LEKUONA SARIA "IRATZEDER"ERI

—Eusko Ikaskuntzak badu "Manuel Lekuona Saria" eta 1994n. urtekoa Xabier Diharce "Iratzeder"ri eman dio.
 — Nor da jaun ori?
 — Doniane Loitzun'ekoa da izatez: 1920n. urteko Urrillaren

4'an jaioa.
 — Eta, saria ematea, noiz da?
 —Izan da: Urria'ren 29'an. Belok'eko Aita beneditarra da. 1940'n. urtean egin zan abade. Gerora bertan lan egin eta Abata Nagusia be izan zan.
 —Eta, zer egin dau sari ori emoteko?

Badauz poesi—liburu sail bat. Poeta sentikorra da eta minbera. "Biziaren Olerkiak" izenakin argiratu ditu guztiak bilduna baten Bilbao'ko Mensajero Argitaldaria.



Xabier Diharce "Iratzeder"

Geiago, zer?
 —Dozenerdi bat antzerki eta Euskaltzaindi—kidea ere bada. Liturgia moldatzen be, lan egin dau. Zorionak.

GREGORIANO KANTAK "BEST—SELLER"

—Silos'eko Beneditarrek atera daben gregoriano kantekin egindako "compact—disc" a batek ustegabeko arrera ona izan dau Europa osoan.

Izan be, esaten neban nik, gure elizetatik eta seminarioetatik kanpora botatako gregorianoa, erriak artuko ebala bere basean...

Asma be, asma dozu.
 — Ori dok ederra, ori! Ez lego-ke txarto geure elizetan lengo Gloria eta Credo ikasiko ba'genduz berriro...

—Latiñez?
 —Latiñez, bai, gero Europa'ko alkar kristiñau—bilketetan danok batera zer—edo—zer kanta aal izateko...

Ba'dakigu zer gerta jakon bermiotar bateri?

—Zer, ba?
 —Barkuakin Bristol'en egoala, joan da eleizara eta abadeak aldaratik "Dominus vobiscum" esan abanian, bermiotarrak bere aldameneko lagunari: — Onek pe euskeraz.



MAITASUNAK ITXARON EGITEN DA U

—200 miila gazteek, gizon eta emakumezko, promesa bat egin deutso alkarri: euren jokabideetan garbitasunean irautea eskondu arte.


Bai, otsoari belarria ikusi deutse—ta...
 — Dana dala, ori ederra dok.
 —Ondo ibilli dozak, ba, sexokeri naaste—borraste orretan oraindano...
 — Aldaketa onuragarria da ori.
 —SIDA'ri belarria ikusita gero...
 —Lasaikeria lur osoan zabaldua dago eta Jainko—legerik biotzetan ez danean, beste era batera izaten da jokabidea be.
 Bai, ortan be arrazoi daukazu; baña, orra nun agertu dan mozorroz jantzitako SIDA bildurgarri ori...

—Garai batean garbitasunaren ondoren, jausi eta jeiki, ibilli oi ziran asmo onenekin mutil eta neskak...

—Asmoa ederra zan; baña gero sexo—askatasuna egin da nagusi eta orra or ondoren deabru zikin bat agertu...

—Aizeak erein eta ekaitzak sortu.
 — Tamalez, beste gauza askoetan bezela, orretan gagoz. Jainkoa eta Ama Birgiña ziran garbitasunaren gorde—leku... Mari, Ambo-

ro'ko sorgiñak ez daki garbitasunik gordetzen.
 —Berriro Ama Maria'rengana jo bearko dogu...
 — Ez dakit zer esan be.
 —Neuk bai.



BARTOLO ARROPAINGO

ZERUETAKO NAGUSIAK

(1º EGUNA)

EUSKERAZALEAK ALKARTEAREN EUSKAL ASTEA, BILBON BIARTIK AURRERA

BILBO. Euskerazaleak Alkartean, urte guztietan lez aurtan be Euskal-Astea gertatu dau. Azil onen 14'tik 19'ra izango da, Eskolapiotarren Ikastetxean, Alameda de Rekalde (Zumardi Ibilbidea) 19'an, 20.n ordutik gero.

Egun bakoitzeko egitaraua au izango da: Aurkezpena, Zubiri'tar Iñaki Alkartearen lendakariak, itzaldia, alkar-izketa, Paulin bertsolariaren ekiñaldi laburra gaiari buruz. Eta al dala, urrengo eguneko itzaldiaren berria emon eta urrengo gaia iragarriko da.

Erabiliko diran gaiak askotarikoak dira: Egaztien mundua, irakaskintza euskeraz, esate eta ibilte azkarraren mundua, euskera aurrerapidean jartzeko aolku batzuk, "Kresala" bizkaierazko literatura eredu-liburuaren iruzkiña, etabar.

Euskerearen adizkide guztiai egiten dautsagu dei itzal-di ta ekintza oneitara. 14- Astelena: Egaztien mundua (Legarreta'tar Asier'ek). 15- Astearte: Irakaskintza euskeraz eskubide-arloan (Otaegi'tar Idoia'k). 16-Eguaztena: esate ta ibilte azkarraren mundua (Zabala'tar Enrike'k). 17-Eguena: Euskera aurrerapidean jartzeko aolku batzuk (Etxaburu'tar Asier'ek). 18-Barikua: "Kresala" elebarriaren azterketa (Prieto'tar Iñaki'k).

DEIA (94-11-13)

GABON JAUN ANDREOK

Urtero egiten dogun lez, gaur aurtengo "Euskal Astea"ri asiera emoten dautsagu. Aurrera joan baiño len, baiña, bioakie eskolapiotarrari "Euskerazaleak"en eskerrik be-roena, areto eder au gure aukeran ipinteagaitik.

Gaurko gaia "EGAZTIEN Mundua" da, eta emoillea Legarreta'tar Asier gaztea izango da. Ona emen gazte oneri buruz gora-beera batzuk: Mungia'ko semea da, ogibidez langillea. Euskaltzale andia dogu, eta zaletasun onek, Bertsolari gazteen taldean ikasle izatera bultzatu egin dau, baita "Mungia Euskalduntzen" taldekoa be. Onezaz gaiñera, Mungialde'ko esaldi ta itzen billatzailea da, gure aldizkarietan azken aldiotan argitaratuak izan diranak.

"Euskerazaintza"n edo "Euskeraren Erri Akademia"n laguntzailea dogu, eta au eskertzekoa da, gaurregun gazteak bide onetatik aalegintzen ez diranean batez be. Eta bere euskaltasuna biribiltzeko, "ZER" gure illerokoan idazle bikain ta ugaritzat diardu.

Entzun egiozue ba, "Egaztien Mundua"ri buruz esango dautsaguena. (Zubiri'tar Iñaki'k).

ZERUETAKO NAGUSIAK

Aupa, arratsaldeon guztioi. Gaur zeruetako nagusiak diran egaztiei buruz itz-egingo dot. Beti gure artean duden egaztiei buruz. Beti ikusi arren oso gutxi dakigu eurei buruz-eta!

Gure txoriak naiz-ta ur gaiñean ibilli, naiz sastraka gaiñetatik ibilli, naiz zeruaren magaletik ibilli, gauza bat dau bere gaiñ: arrigarziko orretarako erreztasuna.

Aldez aurretik berezitasun batzuk aipatzearen: Antartiko inguruan be, aurkitu izan dira txoriak lurberri-aurkitzaile-zaleak, ango ardatz-burutik urbil, eundaka kilometrotan barrura seigarren mundualde artan.

Txoririk geienak egun argitakoak dira, gauez eiza egiten daben arrapari batzuk ezik.

Beste bitxikeri bat esatearren, or da "kolibria", izadiko txoririk txikiena, gramu bi inguru pisatzen dauzan txori txiki onek, lore-auts biltzaile porrokatua izanik, segunduko berrogeitamar bider astindu dagikez bere egoak.

– **NON BIZI DIRA TXORIAK:** Ipar-Ameriketan, esaterako, arrano buru-txuria dago. Bertako armarrarian be ikurtzat ipiñita daukie. Indo-oillo (pavo), kardenalak, belardi-oillo, Kanada itsas-piruak, aateak.

Erdi-Amerikan: Ketzala. Ego-Amerikan: Ara, txori-berritsuak, okillak, tukanak, papagaitxoak, kondorak, kolibriak, alkaatrazak edo zangak, ñanduak (oneik aveztuz'aren aaideak dira), urtxori-gorriak (pelikano), ubarroiak, etab...

Ipar-buruan: Lopodoak (oneik ez dabe egazik egiten oillora'ren pareko doguz), alkak, pagaloak, aliota txintxa-beltzak (Oneik, itsas-txoriak izanik, aatearen aaide dira). Ego-buruan: Antartiko'ko txori-zorro edo pinguinoak. Europan: Eperrak, galeperrak, kaskabeltzak, txantxangorriak, paridoak, ikatz-txoriak, okillak, eta flamenkoak. Afrikan: Basolloak, egalperrak (aveztuz), satelen txoriak, zapata-mokiak, ibis'ak, pintardak, kurillo koroidunak, pagaiak, tantaloak, aeta marabuak. Ego-egoaldean: albatroak (munduko txoririk aundienak, itsas-txoriak dira eta 4 neurkiñ dabez egotik-egora).

Asian: Antzarrak, beltzargak (zisne), txirriñak, belak, baso-oillarrak, faisanak. Ozeanian: Australiako irlan: Lira egaztiak, paradisuko egaztiak, martin eiztari aundia, kibisa, kwia (bi txori oneik ez dabe egazik egiten, eta arrigarriena zera da: lumen orde zuleak dabezela, kasu bakarra egaztien artean).

Nueva Zelandan: kasuarioa eta kagua.

Oneik izan dira munduko lurralde baktotzean aurki geinkezan txori-mota garrantzitsuenak, danak aipatzea eziñezkoa da, luze joko genduke-eta.

Ikus dagikegu, munduan ez dagola egaztirik bako toki-rik.

—ZER DA TXORI BAT?: Egaztiek azurdura gogorra ta ariña dauke, ariñagoak izan daitezcan, ezurak barru-utsak daukez, egazkiñak egiteko aluminiozko tuboan antzera. Egoetan dagoz erantzirik azurdura oneik. Luma ariña eduki arren, oso gogorra dauke. Luma bat kentzen baidatzagu txori bateri, atzamarra pasatu ondoren. an ikus geinke zulo txo bat. seiñale oneik dirala-ta, txoriak gu baiño askoz leenago lortuak dira.

—GURE LUMADUNAK: "Ornitologia" da egaztien barria emoten dauan jakintza. Esaterako gauza bitxi bezala: Eisenhovver jeneralak, Italia'ra barkuz iritsi zanean. zuzenean idatzi eutson Ameriketean euko anaia'ri ainbat ariñen txorien barri ekarren liburu bat bialtzeko, Italian egozan txoriak ezagutu dagizan. Txori-zalea izateko, ez dago ez adiñik, ez lanbiderik, ez aparteko berezitasunik. Kaletarrak be badauke txoriak ezagutzeko aukerea, urietan be gure lumadunak edatzen dira-ta.

—URIETAKO TXORIAK: Txoriak ederto baten ego- kitu izan dira gure urietara. Ogi apur batzuk janda aurrera urtetan dabe. Gizona'ri beti jarraitu izan dautsoe. Esaterako: Nekazaritza sortu zanean, Nilo eta Kaukaso artean dagozan zelaietan bizitzen ziran, emen oitu ziran nekazari-ekin bizitzen. Andik aurrera nekazari-ekin sortutako urietara be oituko ziran. Adibidez or dagoz usoak kaleetako jaun eta jabe, etxeetako ormak daukiez aintziñako arkaitzen ordez.

Maiatzatik aurrera, enara'ren zaratak alaitzen dauksu zerua. Itzelezko abiaduran egaz egin dagike enarak, 200 Km./orduko. Edozein zugatz-enparantza baten agertzen da zozo bikote bat, arrak bere moko bellegia urre koloreko dauala. Ipar-ameriketako uri andiak be kolonizatu dabez txoriek. An dagoz kaxkabeltzak eta pika zozoak, euren kantuak aietara jaurtiaz. Gure ondakiñekiñ baliatuz poza emoten dautsoe gure uriei txoriño oneik.

—LORATEGIETAKO TXORIAK: Garagarrilleko egun batean goiz jagi . goizeko preskurarekin arin agertzen da lorategiko landara eta lore tartetik kaxka-beltz saldoa iskanbillatsu. Bere soiñua dala-ta, batzuk "ola-gizon" izena emoten dautsoe.

Kaskabeltz (txinbo) oneik, ain etxeko izanik, orregaitik egiten dabez euren abiak gutunak usteko buzoietan eta esne-botilletatik esne zurrutada galantak edan. Gure txoririk ederrenetakoa "itsats-gorria" da. Kantu gozoa darrai bere ondorengo txorrotxioaekiñ. Txori oneik laister salatzen ditu bere kantuak, geldi egon eziñak dira-ta. Txepetak orren txikia izanik itzelezko zalaparta sortarazten dau. Bera da gurer txori txikerrenetarikoa 6zm dituala, txinboarekin batera.

Arrak ataritzen dau zaratarik geien abiz-abi dabilie- nean. Ar bakoitzak ainbat eme daukoz eta oneitariko eme baktzak urtero 12-tik 14-ra bitarteko ume kopurua dakar. Ez dago orrenbeste txepetx gure errietan azken urteotan, arrepakari-ek eta pozoiak asko il dabez-ta. Txori guzti onein kantuak, denbora onaren adierazgarri dira.

—OIANEKO EGAZTIAK: Baso aundiak badaki bere misterioak ondo gordetzen, txori mota askotaz ornitzen da basoa.

Txantxangorriak bere papar gorriagaz ederto baten abesten dau. Udan batez-be armiñ egoten da, beste ar batzuekin egotea da, beste ar batzuekin il arteko errita aldiak egiten dituala. Neguan oster, moteldu egiten da otzak agertuz doazen eiñean. Efemeride antzean konta geinke: Aristoteles'ek, Jesukristo baiño lau gizaldi aurreragoko gizon onek uste eban, txantxangorria eta ikatz-txoria bat zirala. Zergaitik?: Ikatz-txoria neguan leku beroetara aldatzen da, ta arek uste eban sasoi batetik bestera kolore gorria paparretik isatzera aldatzen jakola eta txori bat zala.

ZELAIETAKO EGAZTIAK: Azeritxoa eta belea'ren ipuiñean, belea iñozotzat agertu arren, ez da bape iñozoa, bera da egaztietan azkarrenatarikoa. Kantua eta lumajea ez daukoz ederrak, baiña bere ikatz kolorea polito agertzen dau eguzki printza-pean.

Aintziñako ziñizkeriak be, belea aintzat artzen eban. Esaterako: Apolo'ri belea agertu jakon, geroa igarten ekialako. Eskandinabiarrak eta germaniarrak, barriz, gurtu egiten eban, "Odin" jainkoaren txoria zalako.

Belamikak, neguan lur landuetan bizitzen dira. Euren moko aundiak gari-ale billa lurra obeto zulatze-ko erabiltzen dabez. Alde batetik kaltegarriak izan arren, xomorroak jaten dabezenean mesedegarriak dira. Illuntzean lotara biltzen diranean, zaintzailleak ipinten dabez begi belarri ernai. Belek ainbat eratako txori-zaratak atara daguez, beste txori batzuk uxatzeko.

Pika, belea'ren lengusua da. Bere ezbardintasunik nabannenena zera da: lumajea zuri-baltza daukola eta euren isats luzeaz baliatzen dira zuaitzetan balantzari eusteko. Zelaietako zabaldietan or dabiltz eper-bandak, igitaiak utzitako ale ondarrak batzen. Kabiak lurrean ipinten dabez. 20 bat arrautzeraiño erruteko kapaz dira. Txitak arrautzatik urten orduko bere buruaren jabe dira, jantzirik dagoz eta bakar-bakarrik jan legikee.

Faisana gaur ere egazti an-otza dogu berez. Grezitarrak eta erromatarrak sartu eban Europa'ra, Kaukaso'ko lurretarik ekarria. Europa'ko errege-etxeetan agertzen jaku X. gizaldiaz geroztik.

—MENDIETAKO EGAZTIAK: Egaztientzat gordeleku ezin ohea da mendia, gizonari errez iges egiteko. Arranoa da egaztien erregea, Aintziñatik asita gizonak gurtu izan dau, Zeus jainkoaren egazti au, beraren ausardia eta egokiera ikasbide daukozela. Jateko orduan: muxarrak ditu gogokoen, ala ere mendi-erbiak eta txori batzuk be arrapatzen ditu. Arranoa oso mesedegarria da, animali

EUSKAL ASTEA

erkitu eta gaizkutuak eta garbituz, izurrite askotatik gordezen ditu gure mendietako abereak. Begi ikusgarria dau, berataz baliatzen da geienbat. Bi begiek, buruko muiñak baiño geiago pisatzen dautsoe. Baiña ba-dira beste egazti asko ere, naiz-ta txikiagoak izan, belardietako lore artean dabilzazanak.

Esaterako: Oskillasoa; txori alaia da, belen aaide au.

Arkaitz-txoria; goitik beera ebakitako arkaitzetan dabilku, eguzkiaren beroak ataratako xomorroak jaten.

Azkenik or doguz; bela-txiki moko-gorri eta moko-oriak. Talde aundietan ibilli oi dira eta arkaitz ormatan arzen dabe eguzkia.

– **ITSAS EGAZTIAK:** Itsasoa, mundua'ren lautik iru ura da eta guztia bizidunez josia dago. Alatan, eziñ gara iñolaz-ere arritu, bertan txori-mota asko bizi ba-dira. Dudarik barik, albatros'a da itsaso'ko eta baita lurreko egaztirik aundiena. 4 neurkiñ daukoz egaletik-egalera. Egaz asi aurretik egoak astinduz joaten da aireplano baten antzera. Eurok dira itsas-barruko bizitzara obekien moldatu diranak.

Antxeta moko-gorria, udaran kapusai baltzarekin, gure kontura bizi da itsas eta aintzira baztarretan. Kaioa. moko-ori-aundiduna, naranja koloreko zaplazta gorri bategaz, oso ugaria da, eta era berean oso trebea, ugiñak botatako zaborrak bilduaz. Ez da egazti formala, beste txori batzuen arrautzak eta txitoak arin irensten ditu-eta. Kaioa'ren lengusua dan "pagalao" be or dogu. beltzez jantzitako lapur eziñ ohea. Aideetako piratak esaten dautsoe jenteak.

Udazkena'gaz batera badatoz kulixka-txikiak Artikotik. Ondartzetako arriak miatzen ibiltzen dira muxkulluen billa, ori dala-ta, arri-iraule ipiñi dautse izen-goitia.

– **ZINGIRA AUNDIETAN ZEAR:** Frantziak badu lur-zati bat, bertan eguzki beroa izaten da eta ur-geza ta gazia naastu egiten dira. Kamarga du izena eta Rodano ibaia'ren bi besoen artean dago.

Kamarga txori-erri bat dogu, eta guztien buru flamenkoa da. Luzeran metro t'erdi daukoz eta lepu luzearen soñean buru txiki bat. Taldeka bizi dira txori oneik gatza-ga auetan.

España'ko egoaldean be, Guadalquivir ibaia'ren bukaeran, loitzun luze-zabal bat ageri da, "Coto de Doñana" ain zuzen. Bere izena, XVII. gizalditik datorkio. Orduko Medinasidonia'ko dukeak, "Doña Ana" izeneko alaba bat eukolako. Ainbat urtetan izan da Europa'ko aundizkien eizalekurik onena. Bertoko jaun eta jaubea "arrano goilea" da.

– **AFRIKA'KO LOITZUNETAN:** Duda barik, "Ibis'a" dogu entzutetsuena. Aiñtziñako ejiptoarrak jainkotzat eukien eta aren irudiak arretaz jaso izan dabez Ejipto gaineko illobietan.

"Jaribu" izeneko egaztia. kolorez oso aberatsa dogu, bere lengusua dan amaimoko afrikarragaz bat eginda ibiltzen da normalean. "Ave martillo" edo Maillu-txoria be laguna dau.

Zingira edo laku osoa artuta daukola esan geinke "Jkana" ara iristen danean. Aurki, ur-oillotxo oso ariña da eta zingirara datorrenean, "igel-belarretan" eta uretako beste landare batzutan geratzen da.

– **BASAMORTUKO EGAZTIAK:** Saharan barneratzen ba-gara, txori ikusgarri batzuk ikus geinkez, gitxi izan arren naiko dira alako egoeretako lurretan bizitzeko. Txoriak oasietako babespean izaten dira geienetan. Basamortuan arrapakari ugari dagoz, ala nola; txori-zomorrojale txikiak ba-dauko jagon bearrik.

Or dagoz basolloak, lur kolorea daukela eta euren babesik onena, sako-unetan edo arri-bastarretan izkutatzea da. Beste batzuk ordea kolore arraroa izaten dabe, eta jateko ez dira bape onak.

– **ARTIKO'KO EGAZTIAK:** Gau-erdiko eguzkia dagoan lurralde au, munduko lurralde arrigarrietako bat dogu. Uda oso laburra da, loreak be sortzen dira eta ordu gitxitan asita, proba eginda dagoz. Lorak asi orduko milla txori urreratzen dira. Duda barik. itxas-egaztiak dira ugarrienak, ur otzak arrai-aukera itzela eskaintzen daualako. Arraiñen zai or dagoz: Kaioak eta Fulmar-txoriak, eta "arao" eta "alkak" eraso bizian. "Araoak" arrautzak arkaitz gorrian egingo dabez. Ur-gune izoztuak urtu orduko, an dagoz bizitzen "ali" eta "txintxa-beltzak". Igeri bizkorra izan arren legorrean oso motelak dira.

Loitzun andietan, muxkulu ugari dagozan tokietan, ageri dira beltzarga moko-beltzak, antzar, aate eta kulixkak, txirriñak, kurlinkak, zalduntxo eta "artzibebeak". Baina negu otz eta bakartia datorrenean, elur-eperrak bakarrik gelditzen dira elurpean. euren kabitxoak egiñaz.

– **EGO AMERIKETA'KO EGAZTIAK:** Espaniarrak urre-goseaz, Ameriketara eldu ziranean txundituta gelditu ziran bertako izadiaren edertasuna'gaz. Egia esan, munduan ez da beste lekuri emengo txorien edertasuna aurkitu al dogunik. Txori-berritsuek betetzen dabe oiana euren zaratakaz, tarteko tukanak eta tximinoak egiten dabe zarata.

Or dabil "kolibri-a" edo euli-txoria, munduko txoririk txikiena. Or dabil "ketzal-a" musker koloreko isats luzedun txoria be. Aztekak jainko biurtu eben txori au: "Queztalcoalt" edo txori-suge.

Goazen Andeetako gañetara, gizona bizi dan lekuri garaiena da, 5.000 neurkiñetara. Kondoraren saillak doguz oneik, andeetako erregea'renak. Iru neurkiñetaraiño iristen da bere luze-zabalean. Txal bat garraitzeko kapasa da. Argentina'ko gautxoek era zelebren batean arrapatzen dabez "ñandua". Egalperraren lengusua da ñandua. Zaldiz ibiltzen dira eiztari auek eta soka baten muturrean arri batzuk ipinten dabez, anketara jaurtiaz trabatu edo kateiatu-arazteko asmoa'gaz.

– **AUSTRALIA'KO EGAZTIAK:** Kanguroen lurralde onetan egazti bereziak bizi dira. Berezienetarikoa eta ederrenetarikoa "lira-egaztia" da. Izena ere isatzetik dator. Geldi dagoenean. isatzak lira baten antza daukolako.

Baiña ez du lira jotzeko erabiltzen, emea bereganatzeko baiño. Isatza bere bizkarra jotzeraiño tolesten dau ederto. Kantuz barriz, beste dozena bat egaztiren kantu-ots bardiñak ataratzeko gauza da.

Ibai basterrean entzun geinke burla irripar bat. Martin eiztaria dogu. Australiarrak "kookaburra" emon dautsoe izena. Emengo martin arrantzalearen lengusua da.

— **EGAZTIAK ZELAN BIZI DIRAN:** Gizon bat bizi leiteke aste batzuk ezer jan barik, goruputzak. leendik pillatuta daukonetik. Arrano batek esaterako, illabeteko baraua egin dagike galera aundirik barik, eta oillo batek be amar egun bai. Baiña ba-dagoz beste txori batzuk, santelen txoria esaterako, jan barik ordu batzuk baiño ez da kapas bizirik irauteko. Egaztiak oso laisterrak dira gauza danetan. Gure biotzak 70 taupada emoten ditu miñutuko, aate batenak barriz 200, oilloarenak 312, eta etxe-txoriarenak 460.

Txori bateri termometroa ipiñi ezker, sukarra daukola pentsa geinke, 45'-tara eldu leiteke-eta. Jateko neurria be izugarria dauko txori batek. Adibidez, kaxka-baltzak bere pisuaren aiña jan leike. Alkatraz'ak eta ubarriok 2 edo 3 kilo arraiñ irensten dabez egunero. Ori dala-ta egaztiak egunik geiena jana billatzen pasatzen dabe. Geienak egunean-egunekoagaz bizi dira, beste batzuk ordea, egon al dira egun batzuk baraurik be.

— **XOMORRO EIZTARIAK:** Xomorroak dira munduan dagozan bizidunik ugarienak. Milloika arrautza ipintzen dabez, bata bestearen atzetik. Izadiak sortu dau xomorro asko bistatik kentzeko urtenbidea. Txoriak dira gure babesik onena xomorroen aurka. Ara or kaxka-baltz famili bat bakarrik urtean 14 millioi xomorro garbitzeko gai da. Erregetxo batek 3 milloi tximeleta jaten dauz. Mungialdean tximeleta "sorgiñ mitxi" esaten dogu.

Bizkorrenetarikoa enara dogu. Ganadua egoten dan leketan ibiltzen dira normalean. Edonor aritzeko kiribilketak egiten dabez airean eta mokoa zabal-zabalik dabela erasotzen dautsee xomorroi.

Arrapakari bat be bada xomorro-jalea: "Alkoi erele-jalea" aiñ zuzen. Bere erpa zakarrakaz kabiak apurtzen dautsez erleei lenengo ta beiñ. Gero sakabanatzen diranean, banan banan biltzen asten da, jateko asmoz.

Zuaitzetan aurkitzen diran xomorroak, okilla dabe etsai nagusia. Xomorroa naiz arna zulotik ateratzeko miñgaiña erabiltzen dau okillak. bere mingaiñ luzea, lozm-tan luzatzen dau mokotik kanpora. Miña lirdinagaz josita dauko eta xomorroak bertan itsasten jakoz.

— **FRUTA-JALEAK ETA AZI-JALEAK:** "Piquituerto" edo moko-okerrak dira gure neguko txorien artean, piñu-azi-jale amorratuenetariko batzuk. Euren mokoaren oia eta beea bardiñak daukez. Bestalde txori oneik ondartzailleak dira, guztiz ustu baiño leen botatzen dabez piñu kozkorak eta.

Intxaurrak naiz urrak apurtzeko, intxaur-apurtzaille bat erabiltzen dogu, baiña ezkur-txoriak ez dau orren bear iza-

nik. Ezkur-txori oneik oso moko gogorra dauke eta gorputzez naiko sendoak dira.

Ipar-Ameriketako elur-txoriak ederto baten erakusten dausku, zenbat eratakoak diran egaztien ogibideak. Zozo txiki baten neurriko txoritxo onek, lurrean astraka egiten dau oilloak lez orbel artean, basa-fruituak eta batez-be aleak batzeko. Aziagaz batera xomorroak eta arrak be jaten ditu.

Neguan, "bigura azia" jaten dau "garratzaroak". Frantzia'ko druida zaarrek gurtzen eben bigura-azia, urte osoan egoten da orlegi eta udazkenean. ale zurizka batzuk ataritzen jakoz, azi baltzarana barruan dauala. Garratzaroak zurrupatu egiten dautso, lirdingari bere barruko zuku. Txoriak ziriña egiterakoan, jandako aziak botatzen ditu, gerora bertatik landareak sortuaz. Orra or alkartasun eder bat txoriaren eta landarearen artean.

— **EIZTARI ARAGI-JALEAK:** Egazti arrapariak izen txarra dauke, oillotegietan egiten dabezan zarraskiak dirala-ta. Baiña ez da orrelan. Eurakaz eroaten dabez sarri askotan sortzen diran epidemiak eta gaisoak. Animalia erkiñak janaz.

Egaztietan ederrenetakoa dogu zapelaitza. Edonon aurki geneike, mendian, itsas-basterrean. 200 Km-tik gorako abiadura artu leike goitik beera zuzenean. Uso, bela, itsas-txori eta beste ainbat txori daukoz gogoko. Arratoi-jaleak itxaron egiten dautse bere biktimeei. Gaua eldu orduko ageri dira gaueko arrapari nagusiak: Ontzak.

Euren lumajea oso leguna da, luma bakoitza millaka ariz josia dago, isil-silik eiza egiteko. Oso belarri fiña dauke eta begia barriz oso argia. Lepoa ia buelta osoa emateraiño biur dagike ontzak. Urtero 6.000-tik 7.000-ra sagu eta satitxu garbitzen dabez ontzak.

— **EGAZTI ARRANTZALEAK:** Gure martin arrantzalea geldi-geldi egoten da zugatz bateko adartxo baten gaiñean, arraiñari begira. Ikusi orduko doa buruz beera uretan barrena, utsik egin barik. Bular-aldea gorria dauko eta bizkarra urdiñ bizi kolorekoa. Beste egazti asko be, urgezaren inguruan bizi dira. Andi-enetako bat, gartza moko-luzea dogu. Ur-meeak daukoz gogoko eta lepo-kolpe bat naikoa dau ber mokoa azkon (lanza) bat lez sartuteko bere eiza'ri. Onen lengusua dan ur-zozoak gaua naiago dau arrantzarako. [tsas-txoriak be aitatu bear geunkez, arrantzale azkarrak dira-ta, bere biziko tresnakaz ornituta.

— **SARRASKI-JALEAK:** Saia edo putrea da adieraz-, arri on bat. Egorik astindu be egin barik dabil inguruminguru leku jakin batean, leoiek bota daben animaliairen baten ondakiñ batzuk jateko asmotan. Gorpuaren inguruan patxadaz egoten dira itxaroten. Lenengo leoiek jango dabe, gero an inguruan dagozan ienak eta txakalak, eta azkenik saiak. Moko andia dauke aragi zatiak eureganatzeko, itxura baldarra eduki arren, oso lan onuragarria egiten dabe, lurra garbituz. Saiekin batera, miruak eta marabuak dira sarraski-jaleak. Orrelako egaztiak ikusteko ez dago Afrika'ra joan bearrik, ba-dira gutxi batzuk baiño ez ba-

EUSKAL ASTEA

dira Urkiolan be. Zaillak izan arren ikusteko, beñ ikusi ezkeru ikusgarriak dira benetan. Ba-da Urkiola mendikatean "Sai-bi" izena'gaz bataiotuta dagoan mendi tontor bat ere.

– **KOLIBRIAK:** Kolibria txori txikerra izan arren, berataz berba asko egin geinke. Euren lumen edertasuna dala eta, Ameriketara izen oneikaz ezagutzen dabez: "Rubi de Carolina", "rubi topacio", etab... Kimika azterketa bat egin ostean lumetan ez dauke zera baltz bat baiño. Beraz euren kolorea argiaren efektuagaitik lortzen dabe. Egan dabillanean burunda-otsa ateratzen dau, erle-mandoak bezala. Egoak 50 bider dardaratzen ditu segundoko, ori dala-ta ez jakoz egoak aidean ikusten. Txori oneik, ikerketa sakon batek diñoskunez, orain 50.000 urte xomorro-jaleak ziran, euren kokagunea Amazonas izanik, urteak pasa ala, euren asi ziran polinizazioa landareetan egiten, insektuei puesta kenduaz. Moko luze eta fiña dute, luzeraz eurak aiñakoa, linimentu itsaskor bategaz estalirik, landarea polena ezertariko eragozpen barik artu al izateko. 300 kolibri mota baiño geiago dagoz. Txikiena Patagonian aurkitzen da, zomorro baten aiña gorputz ez daukola. Andeatoko gaiñ zabaletan, Mexiko'ko mortu zakarretan eta Kanada'ko oianetan ere aurkitu geinkez.

– **ERAKUSLEAK:** Afrika'ko basoetan, mixto-kaja erdi uts astinduaz ataratako soiñua egiten dauan txoritxo bat dago. Bere gorpuzkera olakoa da: sabel aldea zurizka, bizkarra azeituna kolorekoa, anketako beatzak okillak lez, bi aurrera eta bi atzera daukoz. Txori au erakuslea dogu. Izena bere jokabideagaitik datorkio. Erlauntzia non dagoan erakusten dausku, bitartean guk geure lana egin zai dago, beñ ezta ustuta, erakuslea jaitziko da bere atsegiñezko argizaria jatera. Alkarlan ezin ohea txoria eta gizonaren artekoa. Munduan ez da beste bizidunik argizaria jaten dauanik.

– **SENDIA:** Urteko sasoirik lantsuena familia sortu eta umeak azi bear diranean izaten da, txorientzat. Sasoi au udabarrian izaten da. Txoririk geienak negua taldeka igaroten dabe. Udabarria eldu orduko, txoriak bakar-zaleak biurtzen dira, eta gañera arrak lur sail bat artzen dau eta ez dautso iñori sartzen uzten.

– **KANTUA:** Zorionez kantua berea dau txori bakoitzak. Txepetxaren alarme oivak, txorrotxio bat dirudite. Txortxor laster eta bizi bat entzuten badogu azkenean txistu luze bat egiten dauala, txinbo kaska-baltza da. Gure Euskalerriko basoetan be entzun geinke birigarroaren kantu gozoa edo zozo-baltzaren txistua, edo karda-txoria'ren (jilguero) kantu leguna.

– **TXORIAK EZTAIETAN:** Zer esango geunke bere andragaiarengana esku-utsik doan mutil bategaitik? Txar-to azia dala. Ez dago alakorik esaterik txorikaitik. Apaindurik ederrenak, laguna bereganatu bear dabenean jazten dabez-eta.

Oillotegi batera joatea baiño ez dogu, ta or ikusiko do-

gu erege bat lez oilloaren inguruan oillarra. Egia esan, txori danak ez dagoz lumakaz orren apaindurik, baiña danak moldatzen dira aal dabean bezala euren laguna arrituarazteko. Gartzak paparrekum lumak zutitzen dituz, gartxatxoak ostera, bizkar-gaiñeko luma luze ta sedatsuak zabal-tzen ditu, aintziñako emakume aundizkien antzera. Baiña bada beste ordaiñ motarik ere. Ugalde-enarak, arraintxo bat eskaintzen dautso bere mokoan emeari.

– **PARAISO'KO EGAZTIAK:** Nueva Guinea'ko baso itxietan bizi dira, eta Australia'ko goikaldean. Oneik dira, iñojango zalantzarik barik, txori guztietan dotoreen jantziak. Jende askorentzat beti izan dira oso erakargarriak. Ori dala-ta Nueva Guinea'ko Papua indioen buruzagiak euren aginte aundien ezaugarri lez erabilten ebezan txori onein lumak.

India'ra ere eraman ebezan, ango "marajan" apaingarrietarako, eta baita, Europa'ko emakume aundizkiek urrez bereganatzen ebezan buru soliak apaintzeko be. Zorionez txori oneik eizatzea guztiz galerazita dago, bestela aspaldi galduko ziran.

– **EGAZTIAK ETA EUREN KABIAK:** Txoriak be ba-daukez, gizonen antzera etxeak egiteko orduan euren buruausteak. Batzuk ez dabe burua asko nekatzen abia egiterakoan. Araoak, adibidez ez dira asko nekatzen belar izpiak pillatzen, gero aiekaz zirriku batean abia egiteko. Kurlinkak be ez dauko abi-bearrik, naikoa dau lurreko sakune bat aurkitzea.

Erdi-aroko jaunak, zanga aundi bat egiten eben gazteluaren inguruan eta urez bete, ingurutik zetozen etsiak, sartzeko erarik izan ez dagian. Gauza bera egiten dau "xilipirtak", loitzuneetako ur-gaiñean abia egiñaz. Beste txori batzuk, okillak eta gau-ontza'k adibidez, zuaitz baten zirrikitu edo zulo sakon batetan ipinten dabez arrautzak. Gure baserrietan sarri ikusten dogu enara igeltzero-lana egiten, apurka-apurka kopa baten antzerako ontzi bat erai-ki arte.

– **TROPIKOAN KABIAK:** Txinan bada enararen aai-de bat, itsas-ertzetan bakarrik bizitzen dana, "salanga" dogu txori au, eta abia modu oso brezi batean eraikitzen dau. 7 edo 8 bat zentimetroko ur-bedeinkatu-ontzi baten antza emoten dautsola. Zerez egiña? Bere lixtuaz. Gaiñera bertako biztanleek abia itzelezko platertzat artua dauke. Leku arrisksuetan eraikitzen dau bere abia, arkaitzetan ain zuzen. Bada beste txoritxo bat "eule" izenekoa, landare bate-tik ataratako artaz bere abia egiten dauana. Izpia'ri edo firua'ri, mutur batetik eltzen dautso mokoarekin, eta bere burua boteaz, gorputza'ren karga'rekin goitik beera, jostun on baten antzera egiten dau bere abia. 'Pajaro sastre' edo txinbo jostuna da euleak Asian daukoen lengusua. Onek orri aundi bi daukoz abia egiteko, orri biak alkarre-gaz josiaz ertz banatatik.

– **ABIAK LURPEAN:** Erreka ertzean, aukera eziñ ohea dauko ugalde-enarak abia egiteko. Udabarria eldu orduko ugalde-enara oneitariko bakoitzak, lur-zulatzeari

ekiten dautso. Laister dira ertz guztiak gaztai-zarraren antzera zuloz beterik. Zuloak 5 zm.-tako diametroa dauko sarreran eta metro bat pasea luzeran. Zuloaren bukaeran gelatxo bat dago, zuloa bera baiño apur bat zabalagoa. Umeak gustora egongo dira an, euria'ren beldur barik.

– **UME-ATERATZE ARRIGARRIAK:** Izadiak gizonak baiño askoz leenago sortu dau inkubadora tesna. Orren adibide argi bat ikusi aal izateko, Australia eta Nueva Guinea'ko basoetan bizi dan egazti bat ezagutzea komeni da. "Talegaloa" dauko izena eta oilloaren aaideia dogu. Abia egiteko, orbelez, lurrez, eta goroldioz pillaa aundi bat egiten dabe. Iru bat metro alturan eta amar bat metro bueltan. Ortxe sartzen dabez euren arrautzak goitik beerraiño. Arrautzak, bear dauan ezetasun eziñ ohea dau orbel-pilla ortan. Azala austean, bere kasa atarako dira txitoak, zabor-petik, iñoren laguntzarik barik, eta bizitzeko ere, bakarrik baliatuko dira.

– **KUKUA'REN GORA-BEERAK:** Kukuak ez dauko bape ospe ona. Txikia nintzanean entzun neban lenengoz kuku eta amillotzaren ipuiña, eta ordutik ona bein eta barriri entzun izan dot leenengo bider entzun nebaneko arridura beberagaz. Kukuak ez dau iñoiz abirik egiten, amillotzaren abian izten dau bere arrautza eta amillotz giza joak azten dau kuku-kumea. Kuku-kumea andi egin ala, bere anai-ordeak abitik botaten asten da, arik eta bera bakarrik gelditu arte.

Batzuk diño amillotza ez dala konturatzen, egin dau tosoen azpi-jokoaz, baiña nire ustez, asikera-asikeratik konturatzen da, baiña txori fiña eta biotz onekoa dalez amillotzak, berena ez dan umea ere, berana lez asten dau.

Udabarrian entzun geinke bere silaba biko kantua. Euskalerrian Maiatza asi orduko asten da normalean kuku kantari. Diru apur bat eroan ezker partikeran, urte guttian ez dala izango diru faltarik esaten da. Afrika aldetik etortzen da, eta bera entzutea baiño askoz zaillagoa da ikustea.

– **EGALPERRA** (Avestruz): Egalperra leku legorretan bizi da. Ez dauko egaz egiteko modurik. Kamelluen antzera beaz bi daukoz anketan, ori dala-ta esaten dautsoe kamellu-egaztia.

Egalperrak, etsaiak atzetik jarraitzen dautsonean, burua ondar-pean sartzen dauala gezur utsa da. Egia beste zeozer da. Oso maite dauz dizdira botaten daben gauza guztiak. Orregaitik aurkitu dabez; untzeak, alanbreak, kateak, eta antzeko gauzak egalperren urdailletan. Arrak saietzetan, luma arro ta legunak daukoz. Arei esker, laubost eme bereganatuko dituz zeremoni politekin. Lurrean ipinten dabez euren abiak eta ogeitamar arrautzeraiño pillatzen dabez era batera. Arrautz bakoitzak, 17 zm. luzeran eta 13 zabaletara daukez. Oilloa'ren dozena bi arrautza aiña da arrautz bakoitza. Sei asteren barruan urtetzen dira txitoak arrautzatik, kilo ingurua pisatzen dabela.

– **EGAZTIEN NONDIK-NORAKOAK:** Paseko

txoriek berebiziko ibilaldiak egiten dabez tokiz aldatzeko. Au egingo ez balebe, txori geienak il egingo liratekez. Xomorroak izkutatu edo il egiten dira neguaren etorreraz. Aateak eta xanka-luzeak ezin dabe ezer egin zingira izoztuetan. Ori dala-ta naita-ez, lurralde beroagoetara joan bear dabe txoriek. Orain dala gitxi arte ez genekian nora joaten ziran paseko-txoriak. Ba-ziran garai baten gure txoriak illargira negutzera joaten zireala esaten ebenak ere. Gaur egun be ba-dira, ainbat misterio argitu barik dagozanak. Esaterako: Zerekin baliatzen dira txoriak bidea billatzeko? Or dogu enara, gure lurak utzi eta 20.000 Km. egiten ditu. Batzuren ustez brujula bat omen dabe, baiña ori ez da egia, eguzkia eta izarrekiñ baliatzen dira txoriak bidea billatzerakoan.

– **ERAZTUNAK EGAZTIEI:** Txoriei aluminiozko eraztun bat ipinten dautsee euren ankan, laboratorio'ko señaileakaz, guretzat karneta izango litzateke. Orri esker jakin dagikegu non ipiñi eutseen eraztuna eta noiz, azkenean txoria'ren ibillerak aztertzeko. Españan ipinten dabez eraztunak, onela egoten dira markatuak: "MINIST. AGRIC. MADRID. SPAIN". Txori bateri errez ipinten jakko eraztuna. Aurrena arrapatu egin bear da. Onetarako baimen bereziak daukez txorizaleak euren tranpak eta trikimailluak ipinteko. Baiña eraztun jartzailleak argi jakin bear dau, zeñ txori mota dan. Orren arrazoia erreza da. Txoria ez da jakitun baten eskuetara eroriko, eiztari edo dana-dalako baten eskuetara baiño. Aateak dira geienak, onein eiza berezia dalako. Askoz eskazagoa da txori txiki kopurua. 16.203 kaxkabeltzetik 15 bakarrik jaso ebezan bein. Paseko txoriak dira geien-bat eraztuna daukenak. Beraz, iñoiz gure eskuetara etortzen bada eraztundun txoririk, autoritateengana eraman bear dogu, non eta zelan arrapatu dogun argi ta garbi adieraziaz.

– **NORA DOAZ EUROPA'KO EGAZTIAK:** Asi dira millaka enara argi-alanbreetan biltzen Afrika'ra negutzera joateko. Bidean ainbat eta ainbat ostopo aurkituko dabez, txarrena Sahara'ko basamortua izango dabela. "Ciclón" izeneko aizeak be or dagoz Sudan-aldean, eta azkenik Buena Esperanza'ko muturreraiño joango dira. 10.000 Km.-tara euren sorterritik. Kuku da urrena uzten gaituana. Uztailla geroztik ez da entzuten, Afrika'ko tropikora abiatzen dalako. Garraztaroak be enararen sasoi bardiñean joaten jakuz, geldi-aldi bat egin ondoren Mediterraneo'ko ertzetan, piko elduak jateko asnioagaz. Gure txorientzat Afrika da zorioneko lurra negutzeko. Beste txori batzuk ain ozberak ez diranez, Mediterraneo inguruan gelditzen dira. Ara nola: Txinboa, kaxkabaltza, birigarroa, eta zozo asko. Txori danak ez doaz ordea, or dagoz oindiño: Xepetxak, txantxangorriak eta arta-txoriak, gurre ate-ondoan, Udabarriaren zain.

– **NORA DOAZ IPAR-AMERIKA'KO EGAZTIAK:** Ipar-Amerika, Europa bezain otza da neguan, emengo txori asko ego-Amerika'ra joaten dira negutzera. Oietako bat "Goglua" dogu, amerika'ko kantaririk onena. Izatez Ka-

EUSKAL ASTEA

nada'koa da, eta ingelesak euren izkuntzan "Bobolink" esaten dautsoe. 'Trupialen" bere lengusua da. Abustua'ren azkenean, bandu itzelak biltzen dira Floridan, andik Kuba eta Jamaika'ra joateko. Europa'ko txoriek baiño bide laburragoak egiten dabez Amerika'ko txoriek. Ba-da urrekurlink izeneko txori bat 4.000 Km-atan barrena joaten dana. Argentina'ko Panpataraño joaten da.

– **EGAZTIAK EIZARAKO EZIAK:** Zapelaitza'ren eiza egiteko era kontutan arturik, sortu zan txori onein eziketaren zerbizu'rako. Greziarrak eta erromatarrak egiten eben lan ori, eta erdi-aroan oso eratuia izan zan. Pazientzi asko bear da, arrano edo zapelaitz bat ezitzen. Egaztiak lenengo ta bein azitzaillearen larruz jantzitako eskumuturrean kokatzen ikasi bear dau. Gero arrapatu bear dauan txoriaren zati bat emonaz irakasten jako zein txori arrapatu. Au da, duda barik, abereak bere serbitzura-ko gizonak erarbiltzeko dauan erarik onena.

– **USO ALBISTARIAK:** Zertarako uso albistariak esango dabe askok, irratia eta telebista gure esku daukaguzela. II. gudaldi mundialean 36.000 uso-albistarik baiño geiagok artu eben parte. Baita gero gizona'ri emoten jakozan domiñak edo oroigarriak emon-be. Aintziñatik erabilia izan da uso-albistaria. Ezitzen ari diranean, bere usategira etorten erakusten jako, usotegitik gero-ta urrunago askatuaz. Azkenengo ikerketak, gauza bat argi utzi dabe uso-albistariataz. Orain dala gutxi-arte, usoak lekua memorizatu egiten ebala uste zan, baiña ez da orrela. Urte bat baiño gutxiago da, Estatu Batuetako zientzi-gizon bik: Bryan Handi'k eta Josepht Maeneil-ek, orren erantzuna aurkitu ebela. Usoak begi-ninian marra bat dauko luzetara, katuak goitik beera dauko bezala, baiña alde-rantziz. Eman dezagun gaur bertan uso bat askatzen do-aula, momentu orretan eguzkiak emoten dautson argia begiko marra orretan artu, eta buruan grabatzen dau. Asi egaz eta urte bigarrenean ere, itzul daiteke askatu eben toki bardiñera, bein eguzkiaren printza artu orduko, bere begiko beginini "oblieuo' orretan. Baten jasotako argi baten poziziñoa bakarrik eukiten dau kontutan. Arrigarrria ezta!

LEGARRETA'TAR ASIER

Egalariak egaz doazi
mendirik mendi goietan,
ego zorrotzez ebagirikan
aizea ortz urdiñetan:
; iza semeak begira dagoz
Bilboko areto ontan,
euskal itzaren egazkadea
noraiño doan benetan...

Urretxindorrek urrezko daukaz
eztatri eta pikoa,
abesti eder, zoragarriak,
jalkiz amaren lurrera:
Asier gazte egazka doa
euskaldunen parnasora,
gora ta gora, beti, aurrera
bijoa gure euskera.

PAULIN

ATZO ASI ZAN, BILBOKO ESKOLAPIOETAN, EUSKERAZALEAK ALKARTEAREN EUSKAL ASTEA

BILBAO. Atzo, asi zan Zumardi Ibiltegia (Alameda de Mazarredo) kaleko 1Tan dan Eskolapiotarren Ikastetxean, Euskerazaleak Alkartea'k gertatu dauan Euskal-Astea.

Alkartearen Lendakari dan Iñaki Zubiri'k egin eban, asteko, Aste osoaren aurkezpena: Bost egun eta bost gai ezbardin, bost idazle gazte gai orreik azaltzeko, alkar-izketarako aukera egunero eta amaitzeko Olerkariaren ekiñaldia.

Lenengo egun onetan izlaria Legarreta'tar Asier izan da. Bertsolari gazteen artean izan leiteke Asier'en lekua eta Mungialderako dan bertsolari-eskolan egiten dauz bere alegiñak.

Orrez gaiñera, Euskerazaintza'ren batzarretara joaten da eta Akademi onek argitaratzen dauan aldizkarian agertzen dauz bere lanak. "Zer" aldizkarian be agertzen dira bere idazkiak.

Mungia'n ba-da beste talde aundi bat "Mungia Euskalduntzen" deritxona eta talde orretan bere lana pozik ekin-tzen dau Asier'ek. Izan be Asier Mungia'n jaioa dogu. Ez da arritzekoa inguru onetako esaldiak, itzak eta erri-bertsoak batzeko egiten dauan alegiña.

Beste zaletasun bat be ba-dauka Asier gazteak: Egaztiak ezagutzeko zaletasuna. Baserri-giroan bizi izan da Asier, naizta kalekoa izan, eta beti izan dau egaztiakanako maitasuna.

Ainbat gai aztertu ebazan Asier'ek egaztiari buruz: Egaztien familia, abiak, txorien ibillaldi luzeak negua toki beroagoan igaroteko, abestiak, egazti eiztariak, mezulariak, egaztien istoria eta abar. Eskerrak Asier'i gauza bariak jakiteko eta pozeezko ordu bat igaroteko aukera eskiñidaskulako.

Gero, alkar izketa izan ondoren, Paulin'en bertsoak entzuteko erea izan gendun eta Zubiri'tar Iñaki'k gaurko gaia iragarri eban:

Irakaskintzan eta batez be lege-arloan euskera erabiliteko dagozan eragozpenak eta aukerak. Izlaria Otaegi'atar Idoia andereiñoa izango da.

AMAIRU URTE GEROAGO

Berandu nator, baiña alakoren baten etorri-nator. Amairu urte geroago nator. Alan da guzti be, bapez etortea baiño obeto berandutxo etortea. Etorri be orrexegaitik nator. Obeto izango dalakotan.

Amairu urte dira Bizkaiko Foruaren euskerazko leen itzulpena egin zala. 1981-garren urtean argitaratu zan, eta urte berean Durangoko Liburu-Azokan jendeaurrean agertu.

1526-garreneko jorraillaren 5-garrenean Gernikan egin zan Batzarre Nagusian erabagi eben bertan alkartu ziran kideak Bizkaiko Forua barriztatu egin bear zala, aurrekoa, 1452 -garrenean idatzia eta Foru Zaarra eritxana, zaarkotu egin zala-eta.

Urte aretan bertan, 1526-garrenean, ain zuzen, burutu eben bizkaitarrak Forua barriztatzeko eginkizun ori.

Urrengo urtean, 1527-garrenean, lortu eben Carlos I Agintari Nagusi eta Bizkaiko Jaun zanak izenpetzea, eta irarteko baimena emotea. Baimen orren ondorenez, 1528-garren urtean leenengo aldiz irarria izan zan Burgos-en Bizkaiko Foru Barriztatua.

Gaztelera utsez idatzia eta kaleratua izan zan, zoritxarrez. Gaztelera uts-utsez. Izkuntza bitan, gutxienez, euskeraz eta gaztelera, idatzia eta irarria izan balitz, etorkizun ohea izango leukean, bearbada, gure euskera maite onek.

Urteak eta urteak joan ziran, eundaka urteak be, bai, eta artean Bizkaiko Forua iñork euskeratu ez.

1826-garren urtean Jose Paulo Ulibarriko Galindez-ek eskutitz bat egin euttan Aita Juan Mateo Zabala (1777-1840) idazle eta olerkari frantzizkotar ospetsuari, Bizkaiko Forua euskeratu egiala eskatuz.

Ulibarriko Jose Paulo Galindez semez Okendokoa izan zan, arabarra, baiña bizi, Abandon -oraingo Bilbaon-bizi zan.

Aita Juan Mateo Zabalaren erantzuna naiko gogorra eta garratza izan zan:

"ZER? burua galanto ausi liburuak egin eziñik, urtu orreek argitara atarateko, or, ogeta amar edo berrogei mila errial, ta gero saguak, zedenak ta autsak yateko: edo dendeetan eukoraz tabakoa edo piperra salduteko... Ez nago ni orretarako... Nigaitik forua erderaz geldituko da".

Erantzun zorrotza benetan.

Eta erderaz -gaztelera- gelditu zan.

Baiña ez betiko. 1981-garren urtean euskerara itzulita agertu zan Bizkaiko Foru Barria, idatzia izan eta LAUREUN ETA BERROGETA AMABOST urte geroago. Eta emen be, berandu obe, bapez baiño, esan bear. Bai, berandu etortea obeto.

Bizkaiko Foruaren euskerazko leen itzulpena dan libu-

ruari buruz eretxi-emotea edo kritika OLAZAR'TAR MARTIN neure adiskide min eta aldi aretan ZER aldizkari onen zuzendari eta gaur be onantxe danak egin eustan ZER beronen orrietan (Ikusi ZER -urterilla- 1982).

Eretxi-emote edo kritika aretan Martin Olazar adiskideak aitatu ebazan jakinkizunai edo egin eustazan oarkizunai -batzuri beintzat- erantzuteko asmoz nator idazlan-txo onetan. Berandutxo orain be, baiña banator.

Martin adiskideak, berak beti egin oi izan dauanez, oso ondo idatziz, eta bere eretxia begirunez eta zabal-zabal agerrazoz egin eustan bere eretxi-emotea.

Guzti-guztietan ez etorren bat nigaz, errazoizkoa eta bidezkoa danez, ementxe eta oraintxe bertan ikusiko dogunez.

FORUA ALA LEGE ZAARRA?

Zelan eritxi bear jako Bizkaiko Foruari? Forua ala Lege Zaarra?

Martin nire adiskideak leenengo aitatzen dauan jakinkizuna edo azterkizuna auxe.

"Lege gizonak esan bearko dabe "foru" itz orren esangura zeatza zein dan... aspaldion Lege Zarra esaten da ori adierazoteko, eta zergaitik onartu ez itz ori?".

"LEGE ZARRA" izena onartu zeitekean eta zuzen ezarri lekiokela uste dot Bizkaiko Foruari. Alan da guzti be, FORUA izena obetsi zan. Zergaitik?

Lege-gizonak argiturik daukoe "Foru" itzaren esangura zeatza zein dan.

Au da:

Forua, beronen jatorrizko izate berezian eta zeatzean zer dan jakitea bear-bearrezko da azterkizun au argitzeko.

Foruaren zertasun zeatza mugatu nai izan ezker, auxe esango neuke.

FORUA erri bateko usuarioak eta oiturak dirala, idatzi aurretik eta lege egin aurretik, erriaren erraiñetan sortuta gero, urtetan eta urtetan, bearbada, mendetan eta mendetan erri orrek gorde ete bete egin ebazanak, erri berorren izanbidea egunekoratu egian.

Forua, beraz, beronen sortzezko zer bereziari begira bagakioz, ez da lege bat, *legecrl-en* aurretikoa baiño.

Au egiztatzeko, ondo letorke Bizkaiko Foruak ainbeste bider dakarren esakera gogoan izatea:

"Baita, esan eben: Foruz ebela eta legetzat ezarten ebela"... Foruz ebela, au da, aurretiaz ebela, usuarioz eta oituraz ebela, eta aurretiaz eben Foru ori *lege* egiten ebela.

Bai, lege-gizonak zeatuta dauke FORUAREN zertasun berezia.

FORUAK

Orrexegaitik diño Adrian Celaya jakintsuak: "Antes de que escribiera una sola letra, el Fuero ya existia" (Derecho Civil de Vizcaya y Alava, 15 orr.).

Forua idatziz ezarri baiño leenago eta lege egin baiño askoz leenago, errian bertan sorturik, erri-bizitzeari egokiozan ainbat eta ainbat oitura zaar ziran, ez iñoren edo besteren aginpidez sarrerazotakoak, erriaren "sabelean" berez-berez eta bizi-bearraren indarrez sortuak baiño. Oituron eta usarioon bitartez zertu eta mugatu ebazan erri orrek erritar guztien arteko izanbidea eta bizibidea.

Au dala-ta, sortzezko esangura jatorrari eta bereziari bagagokioz, FORUA gauza bat da, eta LEGE ZAARRA beste bat. Forua Legea baiño leenagokoa da.

Alan eta guzti be, gorago autortu dot: Bizkaiko Foruari LEGE ZAARRA be deitu dakiokela. Zergaitik?

Gernikako Batzarre Nagusietan ordurarte errian gordezten ziran usuario eta oiturak LEGE eginda gelditu zirala. Arrezkero Foruari LEGE eginda izan zanez, zuzenkiro eta gokiro deitu leitekio LEGE ZAARRA.

"BARAGARRIAGOA"

baiño baragarriagoa da oraindiño FRANQUEZA itzultzeko FRANKEZA artzea", dirausku Olazar adiskideak.

Bai, neuretzat be baragarria da, eta edonorentzat. Errazoi guzti-guztia dauko nire adiskide onek Baiña, ez neukan beste urtenbiderik.

Bizkaiko Foruaren euskeratze-lana Estorn s Lasa'tar Jose jaunaren (GB) eta bion egintza da. Estorn s Lasa jaunazan legearen barrutian aditu eta jakitun, XVI-garren gizaldiko lege-eremuan, batez be. Ni-neu -ez dot guzurrezko apaltasun ustelez aditzera emoten- guztiz arlote eta ez-ikasia nintzan. Aren esanetara lan egiten neban. orrexegaitik. Berak zeaztuten eban lege bakotxak eta berba bakotxak amaseigarren mendean eukan esankizuna. Berak egiten eustan argi, eta nik argi orren argitan euskeratu. Aren lan-kidetasuna guztiz mesedegan-i izan jatan neure egitekoa tajuz eta aal nebanik egokiroen burutu aal izateko.

Eta Estorn s Lasa jaunak auxe esan eustan egun baten: "Iñork ez daki "FRANQUEZA" itzak zer esan gura eban amaseigarren gizaldian. Orregaitik, itz ori dagoan moduan utzi".

Lege-esparruan berariazko aditu eta jakitun zanak ori esan ezkerro, nik, arlote onek. zer egin nengikean? "FRANKEZA" itza erabilli bear, beste urtenbiderik ez neuean.

Baragarria, bai, neuretzat be, baiña beste aukerabiderik ez.

"LIBERTADES" BERBA "DONTSU" ORI

Bizkaiko Foruak ^gaztelerazko testuan dakarren "libertades" itza dala-ta, Martin adiskideak auxe ziraustan:

"Libertades" itza "erri-eskubideak" itzultzea be ez dot uste onartu leikenik".

Ez daki Martin biotzekoak (eta bestek be ez) zeñien burukominak eta burukorriñak ekarri eustazan "zorioneko" (ala "zoritxarreko"?) berba ori itz egoki batez euskerara itzuli bearrak Ez. iñork ez daki.

Bearba orrek Bizkaiko Foruan zear daukan esankizun zeatza zein dan jakin bear, leenengo.

Itzaren adierazkizuna zeatz mugatuz gero, euskerazko zein itz egokienez itzuli aal eitekean, urrango.

Azterkuntzak egin bear orretarako, iztegiak arakatu eta jakingai orri legokiozan liburuak miatu eta miatu.

Urte bitan kezkatan, arduratan, neketan, aalegiñetan, izerdibitsetan, eziñetan, jardun izan neban guzti ori neureganatzeko. Urte bitan urduri eta urduri, "aurgintza mine-tan" (Mikel Zarate zanak esango leukeanez).

Bizkaiko Foruak iru idaztaldi izan zituan. Leenengoa, bideak urratzeko asmoz. Bigarrena, aal zanik eta euskera-rik erreenez, errikoi eta ulergarrienez itzuli. Irugarrena, euskera apaindu, txukmdu eta aurreko idaztaldietan ekarria obetu.

Leenengo eta bigarrego idaztaldietan "askabideak" berbea erabilli neban "libertades" itz ori euskeraz emote-ko. Ez dot uste guztiz-guztiz txarto geratuko zanik.

Baiña gero Bizkaiko Foruaren lege bakotxa -BERREUN ETA IRUROGETA ZORTZI lege- ogei bider gutxienez irakurri ondoren, gauza onetaz jabetu nintzan:

Bizkaiko Foruaren bildurra guztia zerau zala: le ^e bakotxa gertakari edo jazoera zeatz-meatz baten adierazpen zala, eta lege edo gertakari ortan Bizkaiko Jaurerria (edo "Jaunerria", Martin adiskideari begiko eta gogoko jakon itza erabilliz), lokabe, bere buruaren jabe, aske, zala.

Izanbide au, jakiña, gorago gogoratu doguzan urtetako eta urtetako oitura eta usarioen bidez eskuratu aal izan ebala.

Ez iñoren aginpidez edo bestek goitik beera ezarriz eta arrerazoz, beetik gora, Agintariak eta Bizkaiko Jaunak berak be onartzeraiño etorritako legea zirala.

Beste berbabide batez esanda:

Erriak bere erraiñetan eta "sabelean" erne eban *e skuer* (aalmena "poder") zala. Eta ori BERREUN ETA IRUROGETA ZORTZI bider (edo berreun eta irurogeta zortzi legetan edo gertakaritan).

Bai, bai! Errian erne eta sortu ziran Bizkaiko Foruaren bildumako lege guztiak eta bakoitza. Erriaren emoitza eta frutu ziran, orrexegaitik.

Berba argiagoz: Bizkaiko ERRIAREN "ESKUA" (poder) eta "BIDEA" (derecho) egiten ebela.

Foruan datozen lege guztiak, beraz. errian bertan beetik gora sortu ziranez, ERRIAREN beraren ESKUBIDEAK zirala neritxan, eta guzti au dala-ta, "libertades" itza euskerara ekarteko barbarik jatorrena, egiazkoena eta egokiena "ERRIKO ESKUBIDEAK" edo "ERRI-ESKUBIDEAK" erabiltea zala, ezertariko zalantzarik ez neukan.

Orduantxe argitu jatan burua. urte bitan jardun eta jar-

dun eginda gero, eta beiñolako Arkimedes ospetsuak "EUREKA!" esanda, irrika biziz billa eta billa ebillen itza edo zana-zalakoa aurkitu ebala aditzera emon eban antzera, neuk be, oni egiñez, auxe esan neuntsan neure buruari: "ENE! AURKITU JOAT, AURKITU, gogo-gogoko neban itz " dontsu - ori". Eta berealako baten "askabideak" berbeak kendu eta "ERRI-ESKUBIDEAK" itza ipiñi neban Bizkaiko Foruan. Orra, "erri-eskubideak" berba orren kondaira iragarrita.

Martin adiskideari (eta beste nonori), esan be, auxe esango neuskio: Nire eretxiz, gatx eta gatx izango litzatekela iztegi eta izkuntza guztian beste itz egokiago bat aurkitzen, " libertades" itzak Bizkaiko Foruan zer esan gura dauan eta axe adierazoteko. Bai, guztiz gatx.

AZKENA

Beste arazo edo jakingai txiki batzuk badatoz Martin adiskidearen eretxi-emote edo kritika-lanean. Ain garrantzizkoak ez dirala-ta, ez dakardaz erantzun onetara, norbaiti aspergarriegi eta nekegarriegi izan ez nakion.

"Goazen erriaren bidetik eta ortik eratu dagiguzan "gramatika-legeak", ez maisuen bidetik", dirau, amaitzeko, Martin idazleak.

Nik-neuk, erriaren bidea eta maixuen bidea, bi-biok bear doguzala, esango neuke. Maixuen bidea edo irakatsia bakarrik, ez. Era berean, erriaren bidea bakarrik be, ez. Gogora ekarri aditza, esate baterako, zeñen txarto erabilten dan errietan. Bide biok bear doguz euskera arrera atarateko. Biok batera, alkarri deusela.

Aor, bada. Etorri naz. Alakoren baten *etorri egin naz*. Amairu urte geroago etorri.

Pedro PUXANA

IPUIN-SARIKETA

(BILBAO'KO UDALAREN BABESPEAN)

EUSKERAZALEAK ALKARTEA'k, urte guztietan lez aurten be, ipuin-sariketea iragarten dau, oiñarri-arauak oneik dirala:

– Ipuiñak euskeraz eta erriak erabilten dauan euskalkia erabilliaz idatziak izan bearko dabe eta idazkerea, EUSKERAZAINTZA'k argitaratua eta ZER aldizkarian erabilten dana.

– Ipuiñak asmatuikoak edo errian batuak izango dira, ez idatzita dagozanak edo itzulpenak.

– Luzeera iru orrialdetik lau orrialdera, idazkiñez idatzita eta bitarte bi dirala. Saria irabazten dabena ZER'en argitaratuko dira. Saririk irabazten ez dabena be bai ipuiñaren barrenean idazleak baimena emoten dauanean.

– Azillaren azkenerako EUSKERAZALEAK ALKARTEAren etxean (Bilbao'ko Colon de Larreategi, 14, 2' eskoia) egon bear dabe. Abenduaren azkenerako emongo da maikoen erabagia eta ZER'en agertuko da, Urterillean, baita DEIA Egunkarian be al bait lasterren.

– Sariak lau izango dira:

1 ^a	40.000 pezeta
2 ^a	30.000 pezeta
3 ^a	20.000 pezeta
4 ^a	10.000 pezeta

– Ipuiñak izen-ordeagaz bialdu eta karta-azal txiki baten barruan izen-ordea ta izena.

OARRA: Epea urtearen azkenera arte luzatzen da.

EUSKERAZALEAK

IRAKURLEAI OARRA


ZER aldizkariak eta EUSKERAZALEAK ALKARTEA'k ba-dauke Bilbao inguruan urteko arpidetza eskuratze-ko erea. Etxerik etxe joaten da kobratzaillea. Baiña gauzea ez da ain erreza errietan. Orregaitik eskari au egiten dautzuegu: Bialdu ei-uzue txartel edo txeke bat. EUSKERAZALEAK ALKARTEAren izena ipiñi ta 2.000 pezeta dirala idatzita. Txartel ori sartu karta-azal baten eta gaiñean zuzenbidea ipiñi: EUSKERAZALEAK ALKARTEA.

Colon de Larreategi. 14. 2º, eskoia. 48001 BILBAO.



BIZKAITARRAI BIZKAIERAZ

EUSKALDUN BARRIENTZAT

8 ZENB.	22299	2283	3 ZENB.
02463332	22323	2291	193
33312473	27527	2802	203
62288124	28328	3003	213
70362229	30331	3273	283
	30630	3312	291
6 ZENB.	32432	5296	292
023630	72882	5326	293
272288	73183	5332	304
352900	81229	6990	305
733323	81282	7288	428
999233	89290	8279	528
		8472	627
5 ZENB.	4 ZENB.	8802	628
00925	0130	9283	727
08133	2278	9429	972



Lauki onetan marrazki batzuk daukazuz. Banatu lau zatitan, baña zati bakoitzean, iru marrazki ezberdiñak itzi bear dozuz.



Azalpena



Azalpena

Jarri laukietan zenbaki onek

ENTZUTEKOAK ENTZUTEN

Bai, aspaldion entzutekoak entzuten doguz euskeraz. Entzutekoak, gero! (Norbaitek esatekoak esaten ditualako).

Egun gutxi dala, esakuntza auxe irakurri neban errietara bialdutako euskerazko idazkitxo baten: "OGIA ALKARBANATZEA". Eliz-berbakuntzan irakurri neban, au da, eliz-erakunde batek egiñiriko orrien zabalkundean.

Zurtz eginda geratu nintzan.

Nik ez dot neure bizitzaldi guztian onango esakunik egundaino entzun. Egundaino be ez. Ez euskal literatura guztian irakurri, ez antxinakoan, ez oraingoan. Ez erriko berbetan iñoiz entzun, ez bizkaieraz, ez gipuzkoeraz. Lapurteraz edo zubereraz-edo esaten dan ala ez, ez dakit.

Lau edo bost urtetatik onantza -oker ez banago- bai, entzun edo irakurri izan dodaz zerbaiten iragarkuntza egitean (kartelak, orriak, eta abar zabaldukeran). Baiña irakurgai garrantzikoetan sekula be ez.

Esakuntza orren mamiña azaltzeko badauz euskerak esakera jator-jator eta egoki-egokiak.

Ikusi:

OGIA ALKARRERN ARTEAN BANATZEA	(Ondo)
" ALKARRI	(Ondo)
" BATA-BESTEAREN ARTEAN	(Ondo)
" BATA-BESTEARI	(Ondo)
" GEURE(GURE)ARTEAN	(Ondo)
" GUTARIKO	(Ondo)
" DANEN ARTEAN	(Ondo)
" DANAI	(Ondo)

Erriaren bidetik zergaitik ibilli ez?

Bestalde, euskal gramatikaren arabera, ez dot uste esakun ori zuzenkiro josita dagoanik.

Ona zergaitik:

"ALKAR" (mutuo, reciproco) berba ori aditz bati lotu da kioke euskeraz. Adibidez:

Alkar ikusi.

Alkar ezagutu.

Alkar artu..

Alkar ondo eroan.

Alkar bat egin.

Alkar gorrotatu.

Alkar jo..

Alkar txikitu. Eta beste aditz askori.

Alkar berba au aditz bati ezartetik sortzen dan esakuntza

gazteleraz "verbos reflexivos" edo "oraciones reflexivas" deritxanetarikoa da.

Era onetako esakuntzak antolabide berezia dabe.

Au da:

NOR-ZER (esaldiaren osagarri zuzena) eta NORK-ZERK (egillea edo aditz-jabea) *era batera itz ber-berak* egiten dabe.

Esaterako:

"JONEK ETA IÑAKIK ALKAR IKUSI DABE".

Esakun onen adiera auxe da:

JONEK (NORK) IÑAKI (NOR) IKUSI DAU, eta *era batera* IÑAKIK (NORK) JON (NOR) IKUSI DAU. Esaldi onetan, beraz, JON eta IÑAKI *era batera* NORK eta NOR dira. Bardin beste esaldietan. Auxe da esakun onen berezi-tasuna.

Onegaitik, euskera jatorrean ezin daiteke esan "OGIA (ZER edo osagarri zuzena) ALKARBANATZEA" ("verbo reflexivo") dalakoa erabillita. Gorago aitaturiko esakunen bat artu bear (edo antzekoren bat) esaldiaren adierazpena zuzenkiro agertu aal izateko. Osterantzean, "contra el genio de la lengua" jokatea (Azkuek esango leukenez) izango litzateke.

"ALKARBANATZEA" aditzaren berez-berezko esan-naia auxe da: NIK ZU BANATZEA, eta ZUK NI BANATZEA ("alkar ezagutzea" aditzaaren esan-naia NIK ZU EZAGUTZEA eta ZUK NI EZAGUTZEA) dan erara. Eta nork ez dau ikusten ori ezin daitekela olan izan?

"OGIA" banatu bear da, eta ez NIK ZU eta ZUK NI. Baiña onango esaldiak ez dabe beste osagarri zuzenik onartzen.

Zergaitik baztertu bear doguz erriaren bidea eta maixuen (gramatikalarien) irakatsia? Zergaitik geure barru-barruko "arragoan" ("arrago" crisol, Azkueren esanetan) artu edo ondu bear doguz ez-egokiak diran esakera barriak, ez iñon eta ez iñoiz euskeraz entzun ez diranak eta gero plazara jaurti errian zabaltzeko? Onango jokaerak ez dot uste cuskerari mesederik ekarriko dautsanik. Kaltea, ostera, etorri lekiok.

Badakit, bai, izkuntzak aldatu egiten dirana. Aitaturiko esakuntza oker ori errian zabaldu badadi eta erri onek onartu badagi, emendik eun urtetara, bearbada, zuzena eta egokia izango litzateke. Baiña ori ikuskizun da eta etorkizun. Eta onan jazoko danik ez dakigu. Euskerak gaur eta emen dituan bideai eta esakerai lotu bear gintzakiez. Nik onantxe deritxat arazo oni.


AGIRREGABIRIA

ARPIDEDUNAI OARRA

Adiskideok:

Aspalditxuan daukagu gure ZER'en salneurria goratu barik, baiña orain ille batzuk dirala ingiak (papelak) gorakada aundi bat izan dau eta ez daukagu salneurria goratzea baiña beste urtenbiderik. Urtebarri egunetik aurrera urteko arpidetza 2.000 pezeta izango da eta ale bakoitza banaka 200 pezeta. Eskerrik asko zuen arrera onagaitik.

EUSKERAZALEAK ALKARTEA'k



A

Itzau begiak une batez eta
begiratu zeure inguruari.

Eraikiñak, kaleak, aurtzaroan jolasten
zenueneko lekuak, ikastegia... Ainbat
eta ainbat gauza ez dira leengoak, ez da?
Garaiak aldatu egin dira. Ezin ezetz esan.
Aiekin batera, zuk oraindik atsegin
dozuzan gauza asko be desagertu egin dira.
Urbiltasuna, begikotasuna,
zuzeneko artu-emona... Orain egiozu so
antziñako sukursal orren argazkiari.
Eta konparatu BBK'ren egungo edozein
bulego ta sukursalekin.
Ez dira ain ezbardíñak.
Azkenean, garrantzitsuenak
bere orretan diraelako.
Gauza batzuk oiñarrikoak dira eta ori
ondo dakigu BBK'kook.
Garaietan zear aldatu egin gara. Jakiña.
Baiña leengo berberak gara.
Zuri laguntzeko. Eta zure alegiñaz
eta geurez onurak itzultzeko.

Betidanik.



BBK
Bilbao Bizkaia Kutxa
EZ DAGO GEIAGO ESKINTZEN DAUANIK